


Aretxa gazeta

Aretxabaleta ● 2000ko ekainaren 8an ● 192. zka.



Azterketa garaian Ikasi eta ikasi



*Nik Agila bat
dankat eta
elkarrekin
etekin
gehiago
ateratzen
digu
bizitzari!*

OPEL



Garaje Talleres Norte, s.l. Zerbitzu ofiziala

Basabe poligonoa A-13 • 20550 ARETXABALETA • Tel.: 943 79 62 65/Fax: 943 77 16 20

**20 urte baino gehiago
zure zerbitzura**

EGUZKIGRAF

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4 (Araba Ibilbidea)
Tf. 943 79 18 44 - Faxa: 943 79 29 41
E-mail: info@eguzkigraf.com

Merkatura etortzeko ohiturarik baduzu? Zein iritzi duzu leku barriaren inguruan?



Asun Zugasti

Astero etortzen naiz. Leku barria oso ondo da-goela iruditzen zait. Beharbada neguan hotz samarra izango da.



Jose Ramon Garai

Bai, ia astero etortzen naiz. Merkatuak asko irabazi du Belorrietara aldatuta.



Mari Asun Esteban

Ez, dut ohiturarik etortzeko. Noizean behin etortzen naiz. Leku hau gehiago gustatzen zait. Postuak hobeto ikusten dira orain.



Patxi Zubizarreta

Bai, bueltatxo bat egitera etortzen naiz. Nire iritzi leku hobe da hau, lehengoaren aldean.

ESKUTITZA

E-MAIL BERRIA ARETXAGAZETAK

Hemendik aurrera Aretxagazetak zuzeneko e-maila izango du. Orain artean Saretxo informatika taldeak duen e-mail zerbitzua erabili dugu, baina hemendik aurrera honako helbidera zuzendu ahal izango zarete edozein informazio bidaltzeko: aretxagazeta@euskalnet.net Helbide berrian zuen berri izatea espero dugu.

Aretxagazeta

ZUZENKETA

Aurreko aleko erreportaje-
jean orain 50 urte
Muruko eguna ospatu
zenez, Galartzako auzotarrek
ura saldu egin zutela aipatzen zen.
Informazio hau orduko dokumentuetatik jaso da.
Dena dela galartzatarrek diotenez jendeak ura asketatik debalde edan zuen.

Aretxagazeta

192. zenbakia
2000ko ekainaren 8an.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaletako
Tfnoa: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak.

Zuzendaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz,
Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Urribetxebarria, Goretti Ayastuy.
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroia, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzzaileak:
Aitor Urrutia, Nerea Lete,
Aiora Filarmendi.



Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.
Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoa egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaraz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Elkartearen helburua industri eraikinak eta era guztietako zerbitzuak kokatzeko behar den lurra gestionatzea da.

Bihargintza S.A. enpresa sortuko du udalak

Udalak egiten duen gestioa arindu eta bizkortzeko asmoarekin Aretxabaletako Bihargintza S.A. izeneko elkarte anonimoa eratuko du udalak. Maiatzaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran enpresa berri honetako estatutuak onartu ziren, baita administrazio kontseiluko kideak hautatu ere.

Lur eta eraikinen gestioa

Elkartearen helburua industri eraikinak eta era guztietako zerbitzuak kokatzeko behar den lurra gestionatzea da, hau da, lurra sustatu, hiriztatu, erosi eta

saltzea. Era berean herriaren eta herritarren onerako izan daitezkeen erabilera publiko nahiz pribatuko sustapen eta enplegu programak martxan jarri eta industri eraikinak, etxebizitzak eta zerbitzuetarako eraikinak gestionatuko ditu.

Udala akziodun bakarra

Bihargintza S.A.k 10 milioi pezetako kapitala izango du eta Aretxabaletako udala izango da elkartearen akziodun bakarra. Administrazio kontseilua, berriz, 6 kidek osatuko dute, gaur

egun gobernu batzordea osatzen duten 5 zinegotziek eta Pablo Txintxurretak hain zuzen eta presidentea alkatea izango da. Administrazio kontseilu horrek administratu, arautu eta ordezkatzeko du elkartea.

Bihargintza enpresa, Aretxabaletako industrialdean kokatuko da. Egunean hiruzpalau ordutan administrari lanak egiteko pertsona bat hartuko da. Elkarte martxan jarri ostean sortuko den lanaren eta eskaeraren arabera bestalde, pertsonak kontratatuko dira.

BEROAKO ZONALDEKO ETXEBIZITZAK EGITEKO AURREPROIEKTUA ONARTU DA 21. zonaldean,

momentu honetan Lasa enpresa kokatuta dagoen lekuan etxebizitzak egiteko proiektuaren aurrerapena onartu zen maiatzaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran. Azkenengo arau subsidiarioak onartu zirenean industria-ko erabilerarako zen lur hori etxebizitzak egiteko izendatu zen. Lasa enpresa Baintxean egiten ari diren industrialdera pasatuko da eta orain lantegia dagoen tokian 130 etxebizitza eta 195 garaje egingo ditu Gasteizko Urbasko enpresa eraikitzaileak.

1.600 m² ere egongo dira lokal komertzialak egiteko.

UDAL BIDEAK EGOERA ONEAN MANTENTZEKO DIRUA

Herriko errepideak eta auzoetara doazen bideak txukun eta egoera onean mantentzen saiatu izan da beti udala. Orain bi astelehen egindako plenoan, horretarako lehen zegoen partidari beste 5 milioi gehitzea adostu zen aho batez. Beraz, 10 milioi erabiliko dira bideetako zulo eta brintzadurak konpondu eta bide bazterrak txukuntzeko.



Taberna Berri jatetxea

Durana, 26 •
ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67

REGIOBO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

AREANO nekazalturismo etxea

- Alojamentua
- Jangela zerbitzua
- Harrera hizkuntza desberdinetan
- Ikastaroak emateko tokia


Mendiola auzoa Tel.: 943 71 44 70
ESKORIATZA (sarrera Aretxabaletatik)



ARETXABALETAKO PLAN ESTRATEGIKOA EGINGO DU LKS ENPRESAK

Udalak herriko plan estrategikoa egitea erabaki zuen orain hilabete batzuk, datozen urteetan Aretxabaletan zer behar egongo diren aurreikusi eta zein inbertsio egin beharko diren jakiteko asmoarekin. Horretarako herritarren partaidetza eskatu da, azken batean herriarren eta herritarren onerako lan egitea besterik ez baita gura.

Plan estrategiko horren ardura LKS enpresari ematea erabaki zen maiatzaren 29an egindako plenoan. Pablo Txintxurretak gidatutako batzorde batek zapi enpresen artetik aukeratu zuen LKS eta beste zinegotziek oniritzia eman zioten. Helburuak eta estrategiak arloka aztertu eta ekintzen plan bat egiteko bost hilabetetako epea izango du aipatutako enpresak eta 7.500.000 pezetako aurrekontua dauka.



CVLko langileek manifestazioaz bukatu zuten hiru eguneko greba

Cerrajera Valle Leniz enpresako langileek greba egin zuten

Joan den maiatzaren 30 eta 31n eta ekainaren lehen greba egin zuten Cerrajera Valle Leniz S. A. enpresako 34 langilek. Langileen batzordeak ateratako komunikatuaren arabera, langileak zuzendaritzarekin elkarriketa sozialik ez izateaz kexatzen ziren eta lan eta tratu duin bat eskatzen zuten. Langile bat hamar


egunerako inolako arrazoi barik kaleratu izana ere salatu zuten. Era berean langile batzordeak, administrazio kontseiluari eta bazkideei egoera hau azter zezatela ere eskatzen zien.

Hiru greba egunei bukatu eramateko manifestazioa egin zuten joan zen ostegunean Herriko plazan.

TXAKUR KAKEN ARAZOA GERO ETA LARRIAGOA

Orain hiru hilabete udalak txakur kaken gaineko banda atera zuen. Bertan, txakur kakak jasoteko poltsak banatuko zituela udalak adierazten zen eta txakurren jabeek kontu handiagoa izatea eskatzen zitzaizkien. Ez du eragin handirik izan eskaera honek, arazoak, gainera, okerrera egin du. Udaletxean poltsak eskuragarri daudela gogorarazi gura du udalak eta Lausitta inguruko lorategiak gehiago zaintzea eskatzen du. Lorategi horiek kakez gainezka egoten direnez, lorazainek ezin dute bedarririk moztu, ez behar bezala lanik egin.

Lausitta inguruan, bestalde, hainbat zabor poltsa agertu dira behar ez den tokian eta behar ez den orduan. Herritarrei zaborren gaineko arauak betetzea eskatzen zaie udaletik.



**ANDRA
MARI**


Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

**Jauregi
Okindegia**

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
Aretxabaleta



**URBALTZ
TABERNA**

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

■ ARETXABALETAKO INSTITUTUAN DIPLOMA BANAKETA EGIN ZEN

“Erreminten mekanizazio eta fabrikazioa” ikasturte bukaerako diploma banaketa egin zen joan zen maiatzaren 26an Aretxabaleta Institutuan. Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko Udalek eta Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak diruz lagundutako ikastaro hau langabezian daudenei zuzendutakoa izan da. 1000 orduko ikastaroa egin ostean 13 ikaslek jaso zuten diploma Anjel Bergaretxe alkatearen eskutik. Bailarako lantegiek fresatzaile eta tornulari berri horiengan jadanik euren interesa adierazi dute, badakite jakin eta prestakuntza egokia jasota datozela ikasleok. Datorren urtera begira ere, langabetuei zuzendutako hiru ikastaro antolatuzeko asmoa dute Aretxabaleta Institutuan.



Atzeratutako Otala Zelai eguna ekainaren 17an ospatuko da

Maiatzaren 21ean ospatu barik geratu zen Otala Zelai eguna datorren ekainaren 17an egingo da. Orduan antolatutako ekintza guztiak ezin badira egin ere, ume eta gazteek ez dute asperetzeko astirik izango.

Goizeko 12etan Gorriti izango da Otala Zelain bere

animaliekin. Arratsaldeko 3,30ean, barrez, dibertsioa izango da nagusi Herriko plazan: batetik, rokodromoa eta tirolina, bestetik, hankapalu, graffiti, makilaje eta txapak egiteko tailerrak eta azkenik, txokor batzea, saku karrera eta hankapalu lasterketa egongo dira.



Renault Scenic RX4 kotxearen aurkezpena

Joan den ekainaren 1ean Renault Scenic RX4 kotxe berriaren aurkezpen ekitaldia egin zen Baster-Alde jatetxean. Aurkezpenean bildu zirenek, Renault enpresak aurkeztu berri duen kotxea gertutik ezagutzeko aukera izan zuten.



KURTZEBARRI ESKOLAKO EGUNA EGINGO DA EKAINAREN 17AN

Ospakizun eta ekintzez beteta dator ekaina Kurtzebarri eskolakoentzat. Aste honetan Udaberriko jaia egin dute eta egon da bai zer ikusirik: antzerkiak, erakusketak... Ikuskizun polita eskaini die ikasleek guraso eta lagunei.

Datorren astean, ekainaren 17an, barrez, kurtso bukaera heldu dela eta eskolako eguna ospatuko da. Goizean irteera egingo da Otala Zelai aldera. Eskolako patioan pintxo lehia-keta ere izango dute. Ordu bietan bazkaria eta bazkal ostean tailerrak, bolo txapelketa eta dantzaldia. Guraso elkarteak, gainera, opariak emango dizkiete ikasle guztiei. Jende ugari apuntatu ei da bazkarira, beraz, jai giroa izango da nagusi zapatuan zehar.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA


Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA



OKENDO
KIROLAK



Maalako Errabala, 13-behea • Tel.: 943 79 92 76

Muruko 50. urteurreneko ospakizunak Galartzan egin ziren

Ekainaren 4an gogoratu eta ospatu zen Muruko kurtzea jarri zela 50. urteurrena. Mendi tontorrean egitekoak ziren ekin-tzak, ordea, eguraldi kaskarra zela eta, Galartza auzoan egin behar izan ziren. Hala eta guztiz jende pilatxo igo zen tontorreraino, han lainoa zela nagusi ikusita buelta egin

eta Galartzan izan ziren meza, plaka berriaren be-deinkapena eta ondorengo omenalditxo. Emozioa izan zen momentu hunkigarri horietan, negarrak ere izan ziren eta omendutako eta familiakoen artean. Bukatzeko luntxa, barrua berotu eta bertarutako guztiek bueltarako indarra hartzeko.




■ Eguraldi kaskarra zela eta Galartzan egin zen ospakizuna



■ Plaka zaharraren berba berberak dituen berria jarri zen



■ Omendutakoak hunkitu egin ziren omenaldi garaian



■ Aitor Antxiak batutako informazioaz Mururi buruzko liburua atera da

EXPRESS
AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tel.: 943 79 23 43

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
☎ 943 79 94 15

Herriko
plazan
ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

IBARRA
ESTANKOA



Tabakoa eta ikasmateria

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

Zumarragako ospitalean hamar urte pasatu ostean Arrasatera etorri zen orain urtebete. Umeak mundura ekartea da bere lana eta gustura egiten du. Ginekologo eta pediatraz osatutako talde baten barruan lan egiteak, gainera, lasaitasuna ematen duela dio.



Amaia Otxoa

Hamabi urte emagin lanetan

■ **Zein da zure eguneroko lana?**

■ Batetik, haurdunaldi bukaeran dauden emakumeei kontrolak pasatzea: umeen bihotz taupadak entzun, emakumeen historiak begiratu... eta bestetik, erditzeak aurrera eramatea, hau da, umeak mundura ekartea.

■ **Ardura haundiko lana da?**

■ Bai, baina gaur egun kontrolpean dago ia dena. Emaginek badakigu gutxi gorabehera noraino hel gaitzekin eta guk konpondu ezin ditugun arazoetarako, ginekologoa egoten da, iritzia eskatzeko edo erditzea berak eramateko. Pediatra ere ospitalean izaten da umeak arazoak baditu laguntzeko. Gaur egun, badakigu lan talde baten barruan gaudela eta erditze baten aurrean ez gaudela bakarrik.

■ **Erditze bat baino gehiago**

ere toka daiteke batera, ez?

■ Bai, horrelaxe da, Arrasaten, gainera, leku falta dago. Bikote bakoitzak bere erditzea bizi dezan gustatzen zait eta ez albokoarena, baina bi edo hiru batera datozenean, ez da samurra. Kasu horietan ezin izaten da norberak gura bezala lan egin.

■ **Euskal Herrian ume gutxi jaiotzen ei da.**

■ Bai, egia da. Bai Zumarragan eta bai hemen, Arrasaten, eguneke bat eta erdi jaiotzen da. Dena dela, momentu honetan bigarren umea izatera dator emakume asko eta hirugarren umedunak ere badatoz.

■ **Lehenengo umea izan behar dutenei esaten den beste nabaritzen zaie?**

■ Bai, bai. Lehenengoan bildur haundia egoten da, ez bakarrik erditzeko orduan ondorengo ordu eta egunetan ere bai. Bigarren eta hirugarrenarekin

emakumeak lasaiago egoten dira eta beste goxotasun bat egoten da erditzean.

■ **Hamabi urte horietan aurrerapenik egon al da?**

■ Bai, teknika aldetik batez ere. Aipatzekoa epiduralaren sarrera da. Min guztiak ez ditu kentzen, baina asko samurtzen du erditzeko ordua eta gaur egun emakume gehienek aukeratzen dute.

■ **Oraindik etxean jaiotzen al da umerik?**

■ Bai, ez asko baina bai. Etxean erditu gura denean, guztia kontrolpean eduki behar da eta erditze on bat ez bada aurreikusten ez da etxean edukitzerik komeni. Valentzian esate baterako, erditze etxe bat dago eta umeak naturalki eduki daitezke igeritokian, ohean... norberak aukeratzen duen lekuan. Hori bai, teknikoki ere oso ondo gertatuta dago.

■ **Umea izan ostean hiru egun ospitalean nahikoa da?**

■ Ez, inola ere ez, baina politika asuntua da. Sarritan emakumea esnearen igoera izan barik doa etxera, 48-72 ordura izaten baita, eta etxean zer egin ez dakiela aurkitzen da. Emakumeak lehenengo egun eta hilabeteetan laguntza handia behar du bai familiaren partetik, bai instituzio aldetik. Amaren esnea ematea bultzatu gura da, baina horretarako laguntza gehiago behar dituzte emakumeek. Orain badago "La liga de la leche" izeneko elkarte bat, bularrari buruzko edozein zalantza argitzeko telefonoz deitu daiteke eta asko laguntzen dute. Bestela, emaginongana jo daiteke laguntzeko gaude eta. Kuriosoa da, baina lizentziatura ateratzeko bost urte behar dira, ama izaten ikasteko, barrez, bederatzita hilabete besterik ez dago.

Ekaina dela eta... gogoetak

Hainbat etxetan ekaina ikasturte bukaerarekin lotzen da, seme-alabak urtean zehar egindako esfortzua urtean jaso zuten deneko hilabetearekin. Kasu askotan emaitz hori sinpleki baloratzen da, neska-mutilengan bakarrik balego bezala beronen erantzunkizuna.

Azterketa sakonagoa eskatzen du gaiak.

Pentsa dezagun une batez: guraso bezala garrantzirik eman al diogu neska-mutila igarotzen ari zen prozesuari? orain baino lehenago, ardurarik eman edo erantzunkizunik eskatu al diogu? animorik, txalorik jaso al du?, edota zailtasunen aurrean kausak aurkitzen eta irtenbideak topatzen lagundu al diogu? Eduki mailako emaitzak axola zaizkigu bakarrik, ala pertsona mailako garapena ere kontuan hartzen dugu? Gaur egun giza konpetitibitatearen giltzarria heziketa da: horregatik gobernuek, enpresari eta erakundeek formakuntzan egiten dituzte inbertsioak. Jakintza, ezaguera, botere iturri bihurtu da. Edozein enpresetan heziketan inbertitzea arrakastarengatik apostatzea bada, zer egiten dugu gure famili-enpresa txikiak errentabilitatea izan dezan? Gu "managers" familiarrok noraino konprometitzen gara gure familia-enpresarekin?

Kalitatezko pertsonak, giza baloretan jantziak eta ezaguera zabalekoak lortzea familia proiektu bezala duten gurasoak, argi izan bezate arrakasta elementu batzuren arabera izan dezaketela:

- Familiari dedikatzen zaion denbora: elkarbizitzako pautak amankomunean

ezartzen joateko, harreman interpersoneletan sortzen diren problemak etengabe gestionatzeko, elkarrekin proiektuak aurrera eramateko... famili giro sendoa eraikitzen joateko azken finean.

- Heziketari ematen zaion garrantzia: auto bat erostean aukerak ondo aztertzen ditugu eta ez gara normalean modelo arrunt edo bajeenez konformitzen: "servofreno", "airbag", ABS sistema... eskatzen diogu eta horrek, jakina, gainerako kostoa du. Irakaskuntza alorrean, era berean jokatu gero, oinarriko den Hezkuntza Proiektuoz gain, eguneratuta dagoen eta kalitate pertsonaleko irakasleko batera hizkuntza aniztasuna, teknika dokumental, informatikak eta informazio teknologien erabilera metodologian, aisialdirako heziketaren eskaintza zabalak, ... eskatu beharko genituzke. Irakaskuntzari kalitatea erantzen dioten elementuak dira hauek eta errentagarritzat baloratzen baditugu ez diogu bere gainerako kostoi muzin egin behar.

- Guraso mailako hobekuntzari norbere formakuntzari eskaintzen zaiona: aurrez ezer ikasi gabe bilakatzen gara guraso eta barneratuta dauzkagun guraso ereduak ez dute balio gaur egun. Ikasi beharra dugu elkarbizitza eta autonomia bateratzen eta hain aldakorra den gizartearen erronka berrietara, gure ustean tinko baina irekiak egoten.

Inoiz guraso izatea zaila izan bada, errealitate sozial honetan zailagoa da oraindik.

Maia ETXEBERRIA



**EKINTZA GUZTIAK
UDALETXE
ZAHARREKO
ARETOAN
IZANGO DIRA**

loramendi
euskerak elkartea

Ekaina

8 eguna

PELLO ZABALA Hitzaldia: tenporak, eguraldia... (7:00etan).

9 eguakotxa

MORAU kontzertua (22:30ean).

15 eguna

ALIZIA STÜRTZE Hitzaldia: sorginak Euskal Herrian (7:00etan).

**Hies
berria**

Tel.: 943 79 26 99

G U R E A

*taberna
jatetxea*

Durana kalea
Tel.: 943 79 20 64



Azterketa garaian ikasle batzuek liburutegia aukeratzen dute ikasteko

Ai ama, azterketak!!

Heldu da ekaina eta ikasle batzuk, asko, gehienak dardarka hasita daude. Ez da ez, hilabete samurra gazte horientzat gauetan berandu arte liburu aurrean, ia hilabete osoa lagunak ikusi barik, azterketa aurrean jarri eta burua zuri... Urtean zehar fin-fin lanean ibili direnak zerbait, baina gainontzekoek gau eta egun ikasi beharko dute azkenengo hilabete honetan.

Urte guztian emandakoa azterketa bakarrean frogatu behar ikasi dela. Nola frogatu? Berdin da. Berdin da zein metodo erabili, zein bidetatik jo, berdin da ikasitakoa ulertzea edo loritoak letxe buruz dena ikastea, berdin txuletak egitea edo albokoari begiratzea, azken batean gainditutako azterketak bakarrik balio du, nahiz eta horrek ez frogatu benetan zerbait ikasi den edo ez.

Aitor Urrutia

Ingeniari teknikoko ikaslea

Aitorrek hogeita bi urte ditu eta Arrasateko Eskola Politeknikoan Ingeniari Teknikoko ikasketak egiten ari da. Ikasketen inguruan berba egitea ez zaio gehiegi gustatzen, nagi samartzat baitu bere burua baina guk ez diogu beste aukerarik eman. Ikasteaz gain Aretxagazetako aldizkari banatzailea ere bada, beraz, hilabete honetan ez zaio batere samurra egingo bi lanetara behar den moduan heltzea.

Ekaina bukaera eta uztailea hasiera bitartean lau azterketa izango ditu, denak ere gogorak, zailena ordea, termodinamika izango dela dio. "Badakit ez naizela ikasle ona, urte guztian zehar ikasi eta ikasketak egunera eraman beharrean, azkenengo hilabeterako uzten baitut dena".

Azterketa garaian, tentazio gutxiago izateko edo, aste bukaera askotan herritik alde egiten du "Normalean Yurre aldera joaten naiz, senitartekoak dituda-

lako han, eta lasaiago ikasten dut". Ikasteko orduan nahiago du gaua, baina azterketak hurreratzen direnean gau eta egun ikasi behar. "Bai, ikasketak egunera eramateko klasera joatea garrantzitsua da, nire kasuan behintzat baina beti ez naizela joaten aitortu behar dut".

Azterketok bukatzean ikustekoa izango da Aitorrek egingo duen parranda, Portasolgo jaiak ere hurrean ibiliko dira-eta, ez da egongo Aitor geratuko duenik.

Ainhoa Cabero

Arte Ederretako ikaslea

Hemeretzi urteko Ainhoa Arte Ederrak ikasten ari da Bilbon. 1. urtea egiten ari da. Aurreko

lauhilekotik irailean azterketa egin beharreko gai pare bat geratu zaio. Lauhileko honetan, barrez, derrigorrean egin beharreko azterketa bakarra dauka baina beste hainbat frogatxo ere gainditu beharko ditu. Ez direla ikasketa zailak aitortzen du baina bai egunera eraman beharrekoak. "Badakit ez dela oso zuzena baina ikasle gehientsuenek bezala azkenengo egunetarako uzten dut dena. Gero larri ibiltzen naiz baina...". Orain arteko gairik zailena irudigintza izan da, bere esanetan ez baitu esku ona marrazketa teknikorako.

"Bilbon nagoenean ez naiz liburutegira joaten, etxean lasaiago eta gustorago egoten bainaiz baina hemen bai. Oraintxe gin-

doazen, gainera, Kepa Errasti eta biok". Nahiago du lagunekin ikastea eta nahiz eta barbarik ez egin, laguna alboan sentitzea gustatzen zaio.



Azterketa garaia baino aurreko bi asteak okerragoak direla dio. Azterketak heltzerakoan badaki zer dakien eta zer ez, eta ez da atzera bueltarik egoten. Beraz lasai hartu eta aurrera. Horrela bada, azterketekin ibili arren lagunekin ateratzea ere gustatzen zaio, kafe bat hartzera besterik ez bada.

Azterketak bukatzerakoan aspertu egingo dela dio gainontzeko lagunak azterketetan ibiliko baitira. "Amak sukaldaritzako ikastaro batean nire izena emango duela esan dit, Bilboko pisuan hobeto moldatzeko asmoarekin. Bestela, ikasle gehientsuenek letxe azterketak bukatzerakoan parranda on bat botako dudala uste dut".

"Azkenengo bi urteotan sekula**baino gehiago joan naiz****liburutegira"****Aitor Irure**

Humanitateak eta Enpresako ikaslea

Humanitateak eta Enpresan matrikulatu zen orain




bi urte eta hortxe dabil jo eta ke ikasketok aurrera atera guran bere hogeita hama... askorekin. Goizez Fagor Automatioko lehendakaria da eta arratsaldez fakultateko beste ikasle bat. Horrez gain, aita ere bada. Ez al da lan askotxo gizon bakkarrentzat?

Ekainaren 12an hasi eta bi astetan zehar hainbat azterketa ditu. "Ikasketak egunera eramaten saiatzen naiz bestela lanean nabilenez ez da batere samurra. Hala eta guztiz azkenengo egunetan ahal den ordu guztiak sartzen ditut". Ikasten hasi zenetik zapatuak ere lan egun bihurtu zaizkio eta sakrifizio hauek guztiak ez bakarrik berak, ingurukoek ere igarri dituzte.

Ikasle txintxo da Aitor, hutsik egin barik joaten da eta klasera. "Gai guztietan ez baina gehienetan garrantzitsua da klasera joatea, ezinbestekoa esango nuke. Nire kasuan, gainera, ez joatea neure kalteetan da neuk ordaintzen baitut". Ikasketak gogorak direla edo ez esatea norberaren baitan ei dago. Eta zerbait gustukoa denean gogorra ere ez dela hain latza egiten dio nahiz eta ordu asko sartu behar. "Azkenengo bi urteotan sekula baino gehiago joan naiz liburutegira. Ez ikastera, lanak egiteko kontsultak egitera baizik. Liburutegiko bi anaiek gainera, asko lagundu didate".

Azterketak bukatzearekin batera oporretan joango da, lantegian ere jai baitu San Juanak direla eta. Merezki dituen oporrak izango dira, zalantza barik, ez bakarrik berak, bai-



"Azterketetan beti okerrago egiten dut berba eta horrela gogoratzen ez dudana ezin dudala esan ematen du"

ta bere hurbilekoek ere.

Iraia Arabaolaza
Historiako ikaslea Italian

Iraia Donostian hasi zen Historiako ikasketak egiten baina aurtengo ikasturtea, Erasmus delako proiektuaren bitartez Italiako Bologna herrian egiten ari da. Ekainean bi azterketa ditu, artxibistikako partziala eta erdi aroko arkeologia eta buru belarri ari da azterketok prestatzen. "Donostian klaseko apunteekin bakarrik moldatzen banintzen ere hemen, Italian, apuntez gain bizpauru liburu irakurri behar izan dut".

Hasieran gaztelania eta italiara nahasten bazituen ere, orain nahiko ondo moldatzen da. Dena dela azterketa egiteko orduan hizkuntzaren arazoa kontuan hartzen diote eta esku zabalagoz jarri nota "Azterketetan beti okerrago egiten dut berba eta horrela gogoratzen ez dudana ezin dudala esan ematen du".

Azterketok bukatzen dituenean, gaindituz gero, ikasketak ere bukatutzat emango ditu. Beraz arrazoi bikoitza merezitako moduan ospatzeko. Izugarriko jaia egiteko asmoa dauka, Italiako lagunez gain Aretxabaletako pare bat ere joango zaizkio eta "Hemen ikasketak bukatzen dituzten 'laureatuei' erramuz egindako koroia jartzen diote, baita lora sorta ugari oparitu ere. Nik lagunekin izugarriko festa egingo dut, ordurako Aretxabaletako lagunak ere etorriko dira, beraz...". Zorterik onena hemendik Iraiari eta laster arte.



Txirrindularitza

Pedro Guenetxea Memoriala bertan behera gelditu da. Urtero legez Pedro Guenetxearen omenez egin izan den txirrindulari proba bertan behera gelditu da momentuz behintzat. Hasiara batean Udako txirrindulari taldeak karrera ekainaren 3an egiteko asmoa zuen. Dena dela, trafiko arazoak direla eta, bertan behera utzi behar izan dute txirrindulari lasterketa. Trafikotik baimena jasoz gero, baliteke beranduago egitea.



Mendia

Atxabaltako bost mendizale datorren zapatuan abiatuko dira Pakistan aldera. Jesus Arregi, Eneka Guenetxea eta Luis Urkia, Inurrategi anaiekin batera zapatuan abiatuko dira Pakistaneko Karakorumera. Lehenengo hiru mendizaleek Gasherbrum II mendiaren tontorra zapaltzea dute helburua eta bi anaiek, barrez, G IIaz gain G I mendia ere igo gura dute. Bi espedizioak norbere aldetik saiatuko dira mendia egiten.



Pilota

Herri arteko pilota torneoan atxabaltarrak final laurdenetara iritsi dira. Herri arteko pilota torneoan final laurdenetara heldu dira herriko pilotariak. Azken jardunaldian, kadeteek eta senior mailako pilotariak tolosarrak gainditu zituzten, eta jubentilek, barrez, galdu egin zuten. Puntuz berdindu egin bazuten ere, 22 tanturen aldeaz Tolosari nagusitzea lortu zuten. Hurrengo Zestonaren aurka neurtuko dituzte indarrak.



Txirrindularitza

Julen Galiano eta Jon Lete aurreneko postuetan sartu ziren Eibarren. Arrasate kirolak taldeko alebinek eta infantilek Eibarren korritu zuten joan den ekainaren 3an. Alebinek 5 buelta eman zituzten zirkuito itxi bati eta Julen Galiano zazpigarren sartu zen. Infantiletan, barrez, Jon Lete bikain ibili zen, laugarren postuan helmugaratu. Datorren lasterketa Arrasateko Markulete poligonoan izango dute zapatuan arratsaldeko 16:30ean.

Gazte-gaztetatik futbolean ibili da Jon Ander Larrinaga. Azken hamar urteetan Udako preferentean jokatu du eta bera izan da aurtengo eta beste urte batzuetako pitzitxia. Aurten 27 urtekin, ezustekorik ez badago behintzat, futbolari agur esango diola jakinarazi digu Udako aurrelariak.

■ **Futbola uzteko asmoa daukazu.**

■ Bai, hala da. Denbora aldetik lanak asko mugatzen nau. Horrez gain, urteak pasatu ahala beste gauza batzuk ere egin gura dituzula konturatzen zara. Futbolak dedikazioa eta denbora eskatzen du eta seriotasun batekin hartu behar da. Zure burua erantzunkizun hori ondo betetzeko gertu ikusten ez baduzu, azkenean erabaki bat hartu beharra dago.

■ **Zer eman dizu futbolari urte luze hauetan?**

■ Lagun ugari, alde batetik, eta gustuko kirola eginez disfrutatzeke aukera, bestetik.

■ **Horrenbeste urte futbolean ibili ondoren, zer botako duzu faltan?**

■ Gehienbat taldeko giroa eta futboleko ezagututako lagunak. Horrez gain, urte mordo bat eskaini dizkiot futbolari, eta azkenegia, gainera, golak sartzeko aukera izan dut, beraz, pena haundia ematen dit uzteak.

■ **Taldeko pitzitxia izan zara, zein izan da golak sartzeko sekretua?**

■ Egia esan ez dakit. Lehen gazteagoa nintzenez gehiago ahalegintzen nintzen, hala ere, prezio haundiagoa nuen eta gol gutxiago sartzen nituen. Azken urteotan lasaiago aurkitu naiz, esperientzia gehiago ere badaukat, eta zorteak ere pixkat lagundu nau.

■ **Zenbat gol guztira?**

■ Aurten 19, eta bestela, denboraldiko hamabost gutxigorabehera.

■ **Urte hauetan jaso duzu beste talde baten eskaintzarik?**

■ Italiako Juventus taldera joateko deitu zidaten, Del Piero eta Zidane jokalariekin aritzeko. Hala ere, harotza izan gura nuelako ezetza eman nien. (ja, ja, ja).

■ **Futbolari bizitzan gertatu zaizun bitxikeria bat.**

■ Behin lagun batekin apostu bat egin nuen. Afaria izan genuen aurreko egunean eta hurrengo egunean partidua nuen. Gol bat sartu behar nuela esan nion, eta gero bizera bat jarriko nuela buruan. Bizera galtzetinean sartuta eraman nuen. Halaxe izan zen, eta bizera jarri ondoren, Fitori eskaini nion. Ikuslegoak golagatik baino txalo gehiago egin zuen ikuskizunagatik.

■ **Eta beti gogoratuko duzun momentu bat?**

■ Bigarren erregionaletik lehen mailara igo genuen urtea. Oso talde sendoa ginen, lagun artekoa. Gainera, urtean zehar partidua gehienak irabazi genituen eta horrek jokatzeko beste ilusio eta indar bat ematen zuen. Horrekin batera, preferentean 17 urtekin jokatutako lehen partidua ere beti gogoan izango dut.



Jon Ander Larrinaga Udako jokalaria agur esango dio futbolari



Herriko inguru zoragarriak gurutzatuko dituzte martxako parte-hartzaileek

Mendi martxarako dena gertu

Datorren domekan egingo den mendi martxarako dena gertu dago. Antolatzaileek xehetasun txikienak ere kontuan hartu gura izan dituzte, nahiz eta, azken momentuan beti sor daitekeen ezustekoren bat. Ezustekorik haundiena, eguraldiak eta jende kopuruak eman dezake antolatzaileen ustetan. Herrian egingo den lehen mendi martxa denez, ezin da jakin zehatz zenbat jende hurbilduko den, eta jakina, eguraldiaren arabera, kopuruak gora edo behera egin dezake. Martxan 250 lagun inguru izatea aurreikusten

da eta 30 bat pertsona, barrez, antolakuntza lane-tan.

Ibilbide markatua

Goizeko 8etan plazatik atera eta 28 kmtako ibilbidea aurrez-aurre izango dute martxara inguratzen diren parte-hartzaileek. Ibilbidea garbia eta ez galtzeko modukoa egiten saiatu dira antolatzaileak. Bidegurutzetan eta galtzeko arriskua egon daitekeen lekuetan, adibidez, lurrean zerrautza botata egongo da eta horrek jarraitu beharreko bidea adieraziko du.

Ibilbidean zehar, bestalde,

bi hamarretako egingo dira. Lehen Ugastein 10. kilometroan, eta bigarrena, Leixargarateko txabolán. Jateko eta edateko ugari izango da bietan, parte-hartzaileek deskantsatu eta indarrak berreskuratzeko.

Martxan parte hartu gura duzuen herritarrok jakin, izen ematea egunean bertan egin ahal izango dela goizeko 7:15etatik aurrera plazan, 500 pta ordainduta.

Hau guztia esan ondoren, eguraldia portatu dadila eta eguna giro politean joan dadila eskatzea besterik ez da gelditzen.

HAUR TXIRRINDULARI FESTA DATORREN DOMEKAN OSPATUKO DA.

Uda txirrindulari elkarteak haur txirrindulari festa antolatu du datorren domekarako. Parte-hartzaileak goizeko 10etan elkartuko dira partenoï parean, eta herri barruko zirkuito bati bi buelta emango diote. Ondoren hamaiketako izango da parte-hartzaile guztientzat. Horren ostean, ginkana probetan dibertitzeko aukera paregabea izango dute txirrindulariek.

Aurreko urteetan festak izan duen arrakasta ikusita, datorren domekan ere hala izatea espero dute antolatzaileek.

PATINETEAZ IBILTZEKO LEKUA AZTERTZEN ARI DA UDALA.

Herriko gazte batzuek egingdako eskaerari erantzunda, Udala patineteaz ibili ahal izateko lekua aztertzen ari da. Aukeren artean "U" itxurako *half pipe* delako bat ipintzea izango litzateke. Hala ere, horrelako "U" batek patinetean ibiltzeko maila haundia eskatzen du eta Udalak egokiagoa deritzo beste irtenbide batzuk begiratzea, *quarter pipe* bat esaterako. Azken hau herritar gehiagok ibili ahal izago lukete eta joko gehiago ere eskaintzen du.

Mitartegari
Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel: 943 79 17 51

Datetxea

ESKORIATZA

Tfno 714345

M

ERRETEGIA

Bazkari
eta
afariak

MENDIOLA

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Aldi/ibi

DOIKALSE

**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 82 44

Udako txirrindulari taldean jendea behar da

Udako txirrindulari taldekoek aurtengo hau euren azken urtea izango dela esan dute. Taldekideak horrenbeste urteren buruan nekatuta daude eta taldean jende berria sartzera animatu gura dute. Eurak hasieran gertu egongo lirateke laguntzeko, baina ardura beste batzuegan uzteko eguna heldu dela erabaki dute.

Gaur egun Manolo Zubillagak, Aintzine Mendiak, Pello Zubizarretak, Jose Mari Rolandek, Jose Angel Arkauzek eta Josu Izagirrek osatzen dute taldea. Aurrean aipatutako batzuk, gainera, 30 urtekin gora egin dituzte antola-

kuntzan eta gainerakoek ere dexente. Taldean berriena Josu Izagirre da. Josu prest dago jarraitzeko baina, jakina, beste taldekide batzuekin.

Hiru proba urtean

Urtean zehar hiru txirrindulari proba antolatzen ditu talde honek: Pedro Guenetxea memoriale, Andramaixetako txirrindulari proba eta San Migeletakoa. Horrez gain, ekainean egin izan den Haur txirrindulari festa ere antolatu izan du. Guzti hau prestatzeko apirila inguruan elkartzen hasten dira eta hilean behin egiten dituzte batza-

rrak urria artean. Euren esanetan, "hemengo lana ardura da, lana baino gehiago. Lan haundiena papeleoa izaten da, federazioko hartu-emanak, baimenak eskatu... gero karrera egunetan zehar Almenetik eta zikloturistengandik ere laguntza jasotzen dugu".

Beraz, gure herrian txirrindulari karrerak ikusi nahi baditugu, norbaitek jarraitu beharko du lan hori egiten. Orain arteko antolatzaileek desafioa bota dute, eta norbait taldean sartzera animatuko balitz, hurbildu dadila taldekideena.



UDAKO KIROLETAN APUNTATZEKO EPEA ZABALDU DA.

Ekainaren 26tik uztailaren 21era bitartean udako kirol kanpaina egingo da. Aurten ondorengo kirolak praktikatuz ahal izango dira: tenisa, igeriketa, aerobika, esku pilota, badminton, golf, patinajea, eskalada, arku tiraketa, mendi bizikleta, gimnasia eta natur jarduerak. Aipatutako kirol gehienak herrian bertan egingo dira, golf-a, natur jarduerak eta mendi bizikleta izan ezik. Golf-a Arrasaten emango da eta mendiko ekintzak, berriz, inguruko mendietan. Bi txanda antolatu dira: lehena ekainaren 26tik uztailaren 7ra, eta bigarrena, uztailaren 10etik 21era. Kirol hauetan parte hartu gura izanez gero, kiroletxean bertan bete daitezke izen emate orria. Prezioa 2.000 ptakoa da abonatuentzat eta 2.500 gainontzekoentzat. Mendi bizikleta eta natur jarduerak, berriz, 1.000 eta 1.500 pta ordaindu beharko dira.



Uda txirrindulari taldeko kideak

Martín

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72

Bere bezeroen zerbitzura

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik
zurre zerbitzuan

Tel.: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIK.


ARRITZEKO S.L.

Etxebizitzak
salgai Durana
kalean

Fueros, 26 5 of. 1
Tel.: 945 23 04 08
01005 VITORIA/GASTEIZ

San Migel erretegia

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71



Jertseak,
kamisetak,
poloak eta
prakak.

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua
Miguel ALTUNA

Instituto E. de Formación Profesional Superior



2000/2001 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAINNTZA

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastikoa eta kautxugintza

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administraritza kudeaketa

Aurrematrikula epea ZABALIK:

Ekainaren 1etik 12ra.

Ohiko matrikula epea:

Uztailaren 3tik 7ra.

Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu.

Helbidea: Ibargarai, 1. 20570 BERGARA

Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40

- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
- Eskola publikoa: integraztailea eta anitza

Denetik

Solarium-a salgai.
Prezioa: 45.000 pta.
Goizez deitu 943 79 68
63 telefono zenbakira.

Motorra erosiko nuke.
Tel.: 943 77 09 52 (Paul).

Bi salmahai eta apalategi
metalikoak salgai.
Tel.: 666957983.

Ziklomotor zahar baten
fitxa tekniko beharko
nuke. Tel.: 943 77 08 02.
(Joxean).

Opel Astra GSI 115 cv sal-
gai. 1993. urtekoa.
Txuria. Tel.: 943 77 09 23.
(Roberto).

Piragua salgai. Whip, it.
Arraunekin, "cubrebañe-
ra" eta bi globorekin.
130.000 pta.
Tel.: 943 79 78 36.

Opel Kadet GSI 2000 16 v
salgai. Egoera onean.
Tel.: 943 79 75 11/79 98
08 (Mikel).

Kotxea salgai Renault 21
TXE. Egoera onean.
Tel.: 943 79 68 63.

Buldog ingeles txuri bat
saltzen da. Bi urte ditu
eta oso zintzoa da.
Pedigri onekoa.
Tel.: 943 79 21 86. (Jon).

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira.
Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik.
Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien
ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia honako txoko
honetan jarri nahi baduzu, deitu
943 79 86 21 telefonora
edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

Boxer eta pastor aleman
arrazako txakurkumeak
salgai. Pedigriarekin.
Tel.: 696 057 346.

Gaixotasun arazoengatik
negozioaz ezin garelako
arduratu, martxan dago-
en denda alokatzen da
Aretxabaletan.
Tel.: 626 379 326.

Bigarren eskuko ordena-
gailu portatila erosiko
nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Txahalak salgai kongela-
doran sartzeko.
Labeldunak eta natural
hasitakoak. Bildotsak ere
bai. Tel.: 689 541 861.

Peugeot 306 XR 1.6 sal-
gai. 1993koa da eta
78.000 Km. ditu.
Tel.: 607 15 30 70.

Ford Mondeo V 6 salgai.
Eguzki-sabaia, aleroiak
eta bajuak ditu. 2 urte,
72.000 km.
Tel.: 609576394.

Ford fiesta familiarra sal-
gai. 16 v. SS-BB.
Tel.: 943 79 91 27.

Opel kadet GSI 2.0, 130
zaldikoa salgai.
Tel.: 943 79 16 43.

Etxebizitza

Logela bat alokatzen da,
pisu konpartitu batean
Arrasaten.
Tel.: 943 79 23 96.

57 m²ko garajea salgai
edo alokagai Errekaba-
rren kalean.
Tel.: 943 79 74 73.

Etxe bat erosi nahi da
Aretxabaletan.
Tel. 649 16 86 69.

Lau neskak pisu bat alo-
katu nahi dugu
Aretxabaletan.
Tel.: 636892129.

Garajea salgai/alokagai
Murubiden.
Tel.: 639418106.
(Ilunkaran deitu).

Herriko plazan lokal bat
saldu edo alokatzen da.
Tel.: 943 79 77 30. Egoera
onean.

Laredon apartamendua
alokatzen dut. Hondartzza
ondoan.
Tel.: 943 79 52 80 edo
656 717 745.

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

• JUANTXO URDAITEGIA	943 79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	943 79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	943 79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	943 79 31 59
• LEINTZ-ROSI	943 79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	943 79 96 43

Lana

Aretxabaletako Udal euskaltegiak irakasle lan poltsa sortzeko deialdia egiten du. Izen emateko epea ekainaren 22an amaituko da eta Aretxabaletako euskaltegi-gira zuzendu behar da. (Nafarroa, 2). Informazio gehiago: 943 79 21 68.

Lan deialdi publikoak

Aretxabaletako Udala. Kontuhartzaitzako teknikaria. Enpresa zientziatiko diplomatura. Lanpostu finkoa. Oinarriak: 00/04/26. Epea: 00/06/12.

Soraluzeko Udala. Administrazio laguntzailea. Oinarriak: GAOn 00/05/5. Epea: 00/06/15.

Bergarako Udala. Lorategi zerbitzuko ofiziala. Oinarriak: 00/05/8. Epea: 00/06/17.

Markina-Xemeingo Udala. Artxibari liburu-zain laguntzailea. Oinarriak: 00/02/18. Epea: 00/06/12.

Eusko legebiltzarra. Irudi eta soinu teknikaria. Oinarriak: 00/05/23. Epea: 00/06/12.

Debagoieneko mankomunitatea. Ingurugiro zerbitzuen gidaria. Oinarriak: 00/05/12.

Debagoieneko mankomunitatea. Hondakin alternatiboko zainkaria. Oinarriak: 00/05/12. Epea: 20 eguneko epea oinarriak EAO argitaratu ondoren.

Kursaal Elkargunea S.A. Ikus-entzunezkoen arduraduna. Oinarriak: 00/05/18. Interesatuak curriculum Ordiziako 89 posta kutxatilara bidali eta ipini 27/00 erreferentzia sobrea.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

MANTENIMENDUAREN PLANIFIKATZAILEA. Debagoiena. Erref.: 32544/1

ADMINISTRATZAILE IRAKASLEA. Arabako lautada. Erref.: 33931/1

MERKATU GESTORE BI. Arabako lautada. Erref.: 33340/3

KOMERTZIALA. Arabako lautada. Erref.: 33074/1

BANATZAILEA. Arabako lautada. Erref.: 32877/4

BOST PEOI ESPEZIALISTA. Debarrena. Erref.: 32810/3

HAROTZ METALIKOA. Arabako lautada. Erref.: 32775/2

ERROTULATZAILE LAGUNTZAILEA. Arabako lautada. Erref.: 31295/6

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martínez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (2. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

BAZTER-ALDE
JATETXEA

SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA

AZKARATE
ARROZTEGIA

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETA
943 77 01 24

T
X
I
L
A
R
R
AELIKADURA
BEREZIA

Durana, 35
Tel.: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tel.: 943 79 44 28
ARETXABALETA

Alberto Zillaurrenek hamazortzi urte daramatza udaltzain. Herria zaintzea da bere lana, trafikoa eta obrak besteak beste. Jendearekin eztabaidan eta borrokan ibili beharra da lanetik gutxien gustatzen zaiona.

Alberto Zillaurren

"Herria zaintzea da nire lana"



■ Nola sartu zinen udaltzain?

■ Oposaketak egin nituen.

■ Zergatik?

■ Maestria bukatu nuenean, lana aurkitzea ez zen batere samurra, horregatik lanean hasi beharra zegoen eta, udaltzain postura aurkeztea pentsatu nuen.

■ Orduan samurragoa zen funtzionario sartzea?

■ Ez, nik uste dut gaur egun samurragoa dela. Orduan 90 lagun aurkeztu ginen, orain postua aterako balitz, askoz jende gutxiago aurkeztuko litzateke.

■ Zer da lan honetatik gutxien gustatzen zaizuna?

■ Jendearekin eztabaidan eta borrokan ibili beharra, multak jartzen dituzulako, obra bat gelditu behar duzulako...

■ Zer da zailagoa multak jarri ala alaba haztea?

■ Multak jartzea. (ja, ja, ja)

■ Udaltzain izan ez bazina...

■ Lantegi batean mantenimendu lanetan aritzea gustatuko litzaidake.

■ Zer egiten duzu lanetik kanpo?

■ Alaba zaindu, baserriko lanak.

■ Eguneko momenturik onena?

■ Ilunkara aldea, lan guztiak bukatuta daudenean.

■ Siestarik egiteko ohiturarik?

■ Ez, normalean ez dut egiten.

■ Erretzeari utzi zenion. Zer moduz?

■ Urte bi egon nintzen erre barik, gero hil pare bat egon naiz gutxi erretzen eta orain osterata utzi diot.

■ Erretzeari uzteko aholku bat.

■ Erretzea guttiz uztea, eta ez poliki-poliki.

■ Non ezagutu zenuen emaztea?

■ Atxabaltan, koadrilan ibiltzen ginen.

■ Bizitzeko adinik onena?

■ 25 urtetik 30 urtera bitartean.

■ Zer behar da ondo bizitzeko?

■ Norbere buruarekin konforme bizi.

■ Etxean zer lan egiten duzu?

■ Danetik, plantxatzea izan ezik.

■ Irratia, telebista ala egunkaria?

■ Egunkaria ez dut irakurtzen. Telebistan albistegiak entzutea gustatzen zait, eta irratia goizetan entzuten dut.

■ Amets bat.

■ Baserri bat erostea. Ez bertatik bizitzeko, baina ortua eta animalia batzuekin gustura biziko nintzateke baserri batean.

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
☎ 943 79 94 15



Mendirik mendi

Egia da gure herrian kirolak albiste ugari ematen dituela, baina bestelakorik ere entzun nuen pasa den zapatuan irratian. Alkatea eta berarekin batera, beste hainbat taldeko hizlariak politto goratu zuten gure herria. Jakin dezatela entzuten zeudenek, Gipuzkoan, badela Donostia baino zerbait gehiago. Biztanleria ere, goraka ei doa, baina joango ez da ba, kalea kotxe kapotaz beterik dago etal Ez da txarra, hobe horrela, gutxitzen joatea baino.

Goruntza edo aurrera doan beste bat **Putz** aldizkariko lantaldea da. Hirugarren alea jadanik kalean da. Aipatu, bide batez, atxabaltar asko ari dela bertan kolaboratzen eta aurrekoan Atxabaltako argazkiren bat ere agertu ei zela. Animo bada, eta segi putz-i puzka.

Udako jokalariek, bestalde, dagoeneko agur esan diote aurtengo denboraldiari baina benetako amaiera emateko, datorren zapatuan Errioxara joango dira urtero legez. Egun horretan, gauean, eskerrak etxean geldituko naizen, izan ere, hauek urte guztian juergarik egin barik egon ondoren, kristona botatzeko gogo

izango dute. Gauean hemen izango dira komeriak. Baina zer arraio! On-do egiten dute, geuk ere zer egiten genuen gazte denboretan? Oraingoan behintzat ni neu etxean geldituko naiz goxo-goxo lotan hurrengo egunerako deskantsatzen. Zergatik? Atxabaltako lehenengo martxara joango naizelako.

Bestalde, Atxabaltako martxa dela eta **Oier Etxebarriak** ezingo du Lekeitioko triatloian parte hartu. Dena dela, aurreko astean Bilboko maratonia egin ondoren, deskantsua ez zaio txarto etorriko.

Mendi kontuekin jarraituta, egun goibela egin zuen Muruko 50. urteurrenaren ospakizunetan. Hala ere, Galartzan giro aparta izan zen. Eskerrak **Zaraia mendi taldeak** ezusteko guztiei aurre egiteko moduan antolatu zuen eguna. Bertan izan ziren lau omenduak edo euren familiartekoak. Horrez gain, Mururen inguruko liburuxka atera duen **Aitor Antxiak** ere aipamen berezia merezi du. Horrelako lagunei esker gure herriko historia idatzirik gordeko da mendeetan zehar.

M. J. Antxiak



Sagu kontuak

Arnold Lobel
Kalendrak, 2000

Zazpi sagutxoak ohean daude aitaren ipuinaren zain. "Ipuin bana kontatuko dizuet, amaitutakoan lo hartuko duzuela zin egiten badidazue". Eta hasten da gutzieren putzuaren ipuina kontatuz, gero hodeiena... zazpiak kontatu eta sagutxoak lo geratu direla ikusi arte. Ipuin laburrak dira, klasiko itxurarekin egituran baina berri-tzaileak ere fantasiaren eta umorearen erabilera bereziagatik. Egilearen beraren marrazkiekin lagunduta datoz ipuinok komikien antzera eta testua bera osatzen eta argitzen dute oso modu egokian. Sei urtetik aurrera irakurriko duten ipuina duzue hau eta txikiagoei kontatzeko ere aproposa.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN


Hona hemen gaurko akatsa.

- Gu zinera goaz.
- Gu be joan geike?
- Bai, etorri leiketzie (txarto).

- Gu zinera goaz.
- Gu be joan geike?
- Bai, etorri zeikie (ondo).

Zelan erabili behar da gure euskalkian aditz hau?

- Neike
- Heike
- Zeike
- Leike
- Geike
- Zeikie
- Leikie
- Leikez



EKAINA

8 EGUENA

■ **HITZALDIA**

Pello Zabalak hitzaldia emango du, eguraldia, tenporak, mapa meteorologikoak eta abarren inguruan. 19:00etan udaletxe zaharrean.

9 EGUAKOTXA

■ **HERRI BATZARRA**

Aretxabaletako Amnistiaren aldeko komiteak antolatuta herri batzarra izango da 22:00etan Urbaltz elkartearen. Hizlaria: Gipuzkoako AAMko kidea.

■ **KONTZERTUA**

Morau kontzertua. Gaueko 22:30ean udaletxe zaharrean.

10 ZAPATUA

■ **TXISTU KONTZERTUA**

Leizarra musika eskolak kontzertua eskainiko du ordu batean udaletxe zaharrean.

11 DOMEKA

■ **MENDI MARTXA**

Irteera goizeko 8etan izango da herriko plazan.

■ **HAUR TXIRRINDULARI FESTA**

Irteera goizeko 10etan izango da partenoiren. 12etan ginkana probak Durana kalean.



15 EGUENA

■ **HITZALDIA**

Alizia Stürtzek hitzaldia emango du. Gaia: sorginak Euskal Herrian. 19:00etan udaletxe zaharrean.

15, 16

■ **AUDIZIOAK**

Audizioak izango dira Leizarra musika eskolan 18:00etan.

17 ZAPATUA

■ **KURTZEBARRI ESKOLAKO EGUNA**

Herri bazkaria egingo da eta ondoren jolasak.

■ **OTALA ZELAI EGUNA**

12etan Gorritiren animaliak izango dira Ojala zelain eta 15:00etan plazan jokuak.

19, 20

■ **AUDIZIOAK**

Audizioak izango dira Leizarra musika eskolan 18:00etan.

21 EGUAZTENA

■ **KURTZO BUKAERAKO KONTZERTUA**

Leizarra musika eskolak kurtso bukaerako kontzertua eskainiko du 18:00etan udaletxe zaharrean.



LEHIAKETAK

■ **ANDRA MAIXETAKO KARTEL LEHIAKETA**

Aretxabaletako kultura sailak Aretxabaletako Andramaixetako jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketa antolatu du. Teknika librea izango da. Kartelaren neurria 50X70 zm izango da. Kartelak derrigor testu hau izan behar du: Andramaixak 2000/abuztuak 14, 15, 16 eta 17/ARETXABALETA. Irabazlearentzat 35.000 ptako saria egongo da. Kartelak, uztailaren 12a baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean. Epaimahaia herriko hainbat pertsonen osatuko dute eta uztailaren 14an jakinaraziko du bere erabakia.

BALITZAKUK (Hikaz berbetan)

KONKURTARINDO NAUK HOGRENBESTE EXAMINEKIN. ETXAKITXAT DENPORIE NUNDIK ATARA.



Mikel Arroiabe

Arexagazeta

Zorion agurrak



Ibon Pablo Menendez
Maiatzak 25
Musu haundi bat eta zorionak tia Rosaren partetik.



Ander Zubizarreta
Ekainak 1
15 urte bete zituen mutiko jatorrenari etxekoan partetik Zorionak.



Naiara eta Oskar
Ekainak 3
Zorionak ezkonberriei. Ondo pasatu ezkon bi-daian. Lagunak.



Paco Miguel
Ekainak 4
Zorionak aittitta eta urte askotarako. Etxekoak.



Ekaitz Oihanguren
Ekainak 5
Zorionak eta urte askotarako. Zure lagunak.



Josune Olmedo
Ekainak 9
Zorionak eta urte askotarako. Lagunak.



Miren Ugarte
Ekainak 10
(7 urte)
Zorionak eta muxu handi bat guraso eta anaia Jonek.



Iratzeder Mendikute
Ekainak 12
Zorion bero-roak zure lagun partetik.



Mireia Olabe
Ekainak 13
Zorionak lagun partetik.



Martin Berrizbeitia
Ekainak 17
(8 urte)
Zorionak etxekoan partetik.



Jesus Mari Zuazua
Ekainak 16
Zorionak tío Jesus, Markelen eta Gaizkan partetik.

Txistuak • Txaloak

Hemendik lasterrera Deba erreka garbi eta bizitzaz beteta egongo dela esaten digute behin eta berriz. Enpresek, produkzio nahiak bultzaturik, eta naturarekiko kontzientziazio txikienaz, euren hondakin likidoak erreka botatzen dituzte. Era berean, herritarrek erreka hain itsusi ikustean, zaborrak botatzen dituzte bertara.

Ur beltzak, txuriak edo bitsez betetakoak ikusten ohitu gara, baita errekan basura poltsak, plastikoak, botelak eta abar ikustera ere. Dena dela, oraingo honetan, naturak, erreka polita izan daitekeela erakutsi digu. Belorrietan ahate bikoteak eta uroiloak ikuskizun handia eskaintzen diete bertaratzen direnei. **Txaloak**, beraz, naturari eta animo herritarrei hegazti hauek gure herrian gustura egon daitezen lagun dezaten.



Jaiotakoak

■ **Jone Zuloaga Vazquez**
Ekainaren 1ean.

Hildakoak

■ **Maria Palomino**
Ekainaren 4an/79 urte.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzbarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzbarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Untzilara urteera

Argazkiko neska kuadrilak Untzilara egin zuen txangoa 1975. urtean. Klaseko mutilek futbolean jokatzen zuten bitartean, neskak Untzilara joan ziren egun pasa, Margarita Bermejo maistrarekin. Azken horrek argazkia atera zuen.

Argazkia sasoi honetan

ateratakoa da, ekainean hain zuzen, baina orain 25 urte.

Argazkian goian ezkerretik eskumara: **Dionisia Mateo, Consuelo Rapun, Mari Jose Caamaño, Mari Jose Martinez, Almudena Romano, Pilar Rodriguez, Inma Miguel, Conchita Paul, Jose**

Fuensanta, Nekane Quintas, Mari Asun Esteban, Mari Carmen De Diego.

Behean **Amaia Perez, Dorleta Padilla, Tina Gonzalez, Briji Mendo, Isabel Arribas, Manoli de la Concepción.**

Argazkia eta informazioa: **Inma Miguel.**



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55




ALDIBI AUTOAK, S.A.



Grupo
Nortekar

Nissan Almera berria Ibilbideaz goza ezazu



Zigorrola kalea, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 01
Fax: 943 79 65 65
e-mail: aldibi@nortekar.com

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Fax: 943 75 35 24
e-mail: aldibi.elgoibar@nortekar.com

GRUPO **RK UZ**

ARETXABALETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert** 

Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxe: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Etixerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR 

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Etixerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxe: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Altzariaken** (Araba Ibilbidea, 20)

2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean,
arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletoan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

pta.